

PLATON

PLATON-ENEKO ATARIAN, Zaitegi eta Plazaola-tar Iokin-ek idatzia, Izarra Donostia-ko irarkolan inprimatua ta Pierre Lafitte-n Aurre-Itzez edertua. 340 orrialde guzira.

Etzen gutxi liburu onen gainean entzunik nuena ikus nezan aurretik. Eta ez dut izkutatuko zein irrits eta gogo amorratuz espero izan dudan argitaraturik noiz eskue-taratuko. Bai entzundako guziengatik eta baita ere Platon beti delako Platon. Bere orijinaletan irakurtzeko gauza ez geranok pozik irakurtzen ditugu itzulpenak eta ari buruzko istudioak. Ta oraingoan, alako promesaz eta itxaropenez ematen zitzaigun liburuan, nola ateratzen ote zitzaigun gure Platon zaar beti berria? Ta ez dut izkutatu ere poztu egin naizela ikustean.

Ekin dio ba ekin badio inork euskera gaitze-lanari, eta bere gusto ta eritzien jarraiki Grezia-ko munduan murgildu zaigu Zaitegi. Bestelakoak aaztu gabe noski, Grezia-ren espiritu paregabeak kreaturiko frutuak eskeini dizkigu. Platon-eri buruz, konkretatzeko, agerturik zizkigun zenbait artikulu Euzko Gogoa-n. Oraingo onetan, ordea, astiro ta gogor eldu dio gaiari ta liburu oso batean, luze ta nare, eman aal izan digu istudio luze ta balotsuen emantza.

Liburua (asmoa kofesatu ondoren) Platon-en bizitzarekin irikitzen zaigu, filosofia, literatura, tab. esplikatuaz jarraitzeko. Azalpenaren sistema bezala sistema argi ta erreza erabilii digu, ez inor naasteko modukoa: beste filosofoeri alderatu, aien parean ta artuemanetan sarturik platondar ideologia jaulkitzen digula, ala filosofiaren esparruan nola beste zernai pontutan. Izan ere Platon-ek etzizun deusezetik sortu ta gaillur artaraño jaso pentsamentua. Zordun zitzaien aurrekoeri, noski. Liburiaren autoreak esango digunez pentsatzallean orpo-z-orpo etortze au adierazteko, "osto-irte-te, arto ereite; osto-erortze, gari ereite", (Eta gizonak! Etzaigula gero erri esaerak erabiltze onetanxe batere lukur eta labur portatu Zaitegi...) ta orobat filosofo batek lortua urrengoak ezta aren billa premiatu bearrik izango. Onela pasatzen ditu tribuna-learen aurretik —Platon-en beraren Alkar izketa famatuak euskeratu ta miratu aurretik— Eraklito, Parmenides, Pitagoras, Enpedokles, Sokrates, Sofistak... beste aibeste kapitulutan. Esana dago "justizi partizalearen ofizioa ezta erreza, ezta atsegiña". Baiña Zaitegi-k txukun eraman digu auzia, nolarebait liburu onek enziklopedia moduan tajutua ta burutua dirudigunez. Agindu ere ez baizaigu agintzen lan zientifiku amorraturik edo sakontasun apartekorik edo irabazi egundo alkantzaturik, ataria baiño. Ta eman herriz, ataria ezezik barnea ere ba-damaigu, ta ederki eman gainera.

Ez digu gaia agortu ta aitua, ez. Nork egin zezakean alakorik amesetan ezpada? Eduki dezagun presente nola Platon-ek asieran eman dion eskola oso bateri, agustin-dar-frantziskotar eskolari, ain berdina ta desberdina zaiona tomismuari. Emen, apika, zerbait geixego atseginez ikusi izango genuen, mogimendu au izan denez Platon fidelki, leialki segitu duen sistema. Segitu, osotu, biribildu. Augustin, Bonabentura, Eskoto, Alejandro Ales-koa, ta milla geiagoren artean aukera zitekean zertxobait, Platon-en ondorena, eragina aldarrikatzen zigunik. Zertxobait bederik, dena azaltzea sekula santaren sekula guzian ez bukatze-koa litzakeanez. Dena dela, ezin ukatuzkoa ta beti eskertzekoa Zaitegi-ren lan pazientziatsua, egonarritsu dugu. Begien bistan dago au.

Ikasi-min ezin-ase faboregarriak mindurik dagoenak (bai baidira alakoak ere oraindik) emen du liburu berri bat. Euskeraz oso gutxi egiten direnetakoa. Trinkoa, ez dotoreziarik sobera, gai interesgarriko, nekez egindako ta esportzuz irakurtzeko. Ez da Zaitegi-k "nere asmoa"-n salatu dituen jakintsu-usteko alfer nagi aizeentzat.

Gaia bera ere etzen artarako aproposenata estiloa, idazkera bear bada ez da oso airosoa, txairoa, bizi arifia. Zerbait motel, akaso, lekuren batzuetan. Nunbait, Zaitegi-ri itz-jokuak atsegin zaizkio, konzetismu tankeran, inoiz Gracián —ezta aren nerbierik— oroiteraziaz. Lesiko ugaria, aberatsa. Itzen medioz adierazten dugunez gure pentsamendua, Zaitegi-k inportantzi aundia, kontuzko arreta dedikatzen dio alde oneri. "Itzak mendeango ditugun ginoan, gure adimenaren ahala, asieratik azkeneraino, zedarrituagoa, zabalagoa ta edatuzkoa dukegu". Egia osoa. Guztiarekin, estiloak ez du liburua egiten (filosofian exemplu asko atera genitza ke neke aundirik gabe omen frogatzeko), edertzekoan parte printzipala ukatu gabe. Ondo daki au Zaitegi-k.

Beraz, arro senti diteke gure Zaitegi langille trebe porrokatua Platon gure artean presentatzen, aurkezten eta jendarteratzen leenengoa izan delako. Ta nai ta oi duen bezala egin duelako. Berak bakarrik daki zer kosta etzaion... "Ezertarako eztanik ezta", —dio egilleak— eta irakurleak, begi bien gainean bekokia ta entelegua duen irakurleak laister ikas dezake liburu onen lezioa...

Oxala balitu irakurle asko bai asko. Ez deritzat itxaroteko. Ez da nornairentzako liburua, gaiagatik beragatik leenengo, eta euskeraren aldetik ere, gure eskasia bildurgarria aitorturik eta ezaguturik, ez noski asko moduzko jendearentzat, eta oen artean jartzten dut leenik neure burua. Derrigorean, etzaio gertatuko irakurraldi korrientea, erraza... "Euskal Ikastetxe Nagusia sortuko da noizbait. Nork lekusken ziorneko egun eder au". **Jose Azurmendi.**